



LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2019-06-06

BILERA ZENBAKIA:61

ORDUA ETA LEKUA: 18:00tan Itsasondoko Udalean

PARTEHARTZAILEAK: Javi, Maider, Leire, Aiora, Marijo, Itziar

EGINDAKO LANAREN LABURPENA

LANDUTAKO GAI ORDENA

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA.
2. HARRERA EGUNA
3. GUZION HERRIA.
4. BERDINTASUN PLANA.
5. ETXEBIZITZA SOZIALAK.
6. BESTEAK.

1. AZKEN AKTAREN ONARPENA

Azken akta onartu da.

2. HARRERA EGUNA

Asistentzia aldetik jendetsua izan zen eta era positiboan baloratu da. Elkarte, eskola, zinegotzi, lantalde kide aldetik ere asistentzia era positiboan baloratzen da.

Formatu berriak elkarren arteko gertutasuna errazten du eta arinagoa da.

Esku-orrian informazio guztia dagoen arren, puntu klabe batzuk finkatu eta elkartean luntxa egiten den bitartean azaltzea komeniko litzakeela baloratu da. puntu hauek sakontzeko beharra ikusi da:

- Lantaldeen inguruko informazioa.
- Zaborra.
- Herri bizitzako watsaperako telefonoa hartzea.
- bestea.



Harrera egunaren inguruko ekintza fitxa egin behar da. Itziar.

3. AUTODEFENTSA IKASTAROA:

Data gazteen artean adostu zen, Emaginek ezin izan zuen data horretan etorri eta azkenik beste data bat adostu zen. Ostiral arratsaldean eta larunbat goizez izan zen tailerra, 8 ordu denera. 11 gazte animatu ziren eta gerturatu zirenek egindako balorazioa positiboa izan da. Hasieran ordu gehiegi ote ziren kezka zuten baina gustura ibili ziren eta ez ziren ordu gehiegi zenaren sententzioarekin geratu.

Ekintza fitxa egin behar da: Maider.

4. JANARI BANAKETA:

Ez da Europako banaketa izan eta janari gutxiago egon da. Boluntarioek Elenak esan bezala klasifikatu dituzte heldutako janariak eta Elenak 10an egin zuen banaketa. Leku aldetik ez da arazorik ikusten, moldatzen dira.

Ekintza fitxa: Leire.

5. MEMORIA TAILERRA:

Herritarrak oso gustura daude memoria tailerrarekin eta lantaldetik baloratzen da espazio garrantzitsua dela. Datorren ikasturtean tailerrarekin jarraitzea ondo legokeela baloratu da, baina ikusi behar zenbat pertsona animatzen diren.

Boluntarioei dagokionez, aurtengo ikasturtean, sare bat eratu da eta hilean bi boluntariok zuten tailerra emateko ardura. Sare hori kudeatzea nahiko zaila izan da, hutsuneak egon baitira. Horrez gain, tailerrera joaten direnek erreferentziatzko pertsona pare bat izatea eskertzen dute. Hori dela eta datorren ikasturterako boluntarioen antolaketaren inguruan hausnarketa egin beharra ikusi da. Agian 2-3 pertsonak konpromisoa hartzea da egokiena.

Irailean izan ematea irekiko da, eta honen arabera erabakiko da tailerrarekin jarraitu nahi den eta nola antolatuko diren boluntarioak.

6. GUZTION HERRIA/ GAZTERIAREN HAUSNARKETA.

Martxan jarri diren bi inizatiba interesgarri dira, baina askotan bi foroetan berdina lantzen da eta hausnartu da, agian hobe litzakeela batean zentratu eta bertatik gai guztiak lantzea.



Horrez gain, dinamika hauetan parte hartzen duten herritarrek, eta, bestelako lantaldeetan dabiltzanek, lantaldeetara informazio zehatza igortzea ezinbestekoa dela adierazi da. Lantaldeak dinamiketan aurrera eramaten diren hausnarketaren berri izan dezan eta landutako ikuspuntuak barnera ditzan.

Ongizateko lantaldean, egun bat guztion herria eta gazteriaren inguruko hausnarketa foroaren inguruan hausnartzeko erabiltzeko beharra ikusi da, eta, horretarako egun bat jartzea planteatu da, nahiz eta eguna ez den zehaztu.

Bi foroak oso interesgarritzat jotzen dira herrian dauden zerbitzu, eta, errealitateen inguruan hausnartu eta printzipio komun batzuk finkatzen dituen aldetik.

7. ETXEBIZITZA SOZIALA.

Duela bi lantalde landu zen gaia eta proposamen bat aurkeztu zen, Udaleko etxebizitzak helburu sozialetara bideratzeko oinarriak zehazten zituena. Proposamen hori zinegotzien bilerara eramatea planteatzen da e

8. ESKOLA ETA GIZARTE ZERBITZUEN ARTEKO KOORDINAZIOA.

Eskolatik Gizarte Zerbitzuekin elkarlana areagotzeko beharra ikusi da guztion herriaren ikuspuntua aurrera eramateko modu gida. Haurrei eta familiei zerbitzu osatu bat emateko helburuarekin. Gizarte Langileak eskolan behaketak egin nahiz arrisku egoerak detektatzeko baliabideen berri emateko saioak egiteko proposamena luzatu diote Udalari. Lantaldetik ikusten da Gizarte Zerbitzu eta eskolaren arteko koordinazioa estutzea ezinbestekoa dela, baina bakoitzak dagozkien lanak aurrera eramanez.

9. EUSKAL FONDOA.

Proiektu ezberdinak baloratu ondoren, lantaldean Argentinako proiektu bat aukeratu da Euskal Fondoko 1200 euroak bideratzeko. Proiektua, nekazari gune batean pabimentua jartzera bideratuta dago.

10. AGENDA 21:

Laia kooperatibak, herritarrekin bildu ondoren Itsasondoko errealitatearen inguruko diagnosi bat egin du, eta, Irailean diagnosiaren arabera proiektu proposamen bat luzatuko du.

11. BOKATA JANA:

Ongizate Lantaldeak bokata janaren ardura beregain hartu zuen herriari begira



arlotan sozialarekin lotutako ekintzak aurrera eramateko dirua lortzeko helburuz. Erabaki da, aurrerantzean lantaldearen bitartez eginiko ekintzak aurrekontuari lotuta joango direla, eta, ondorioz, bokata jana dirua lortzeko helburua duten taldeek antolatzea egokiena izan daitekeela pentsatu da.

Aurtengo bokata jana egiteko prest egon daitezkeen taldeen inguruan hausnartu ondoren ondorengoak azaldu dira:

- Jubilatua.
- Gazteak.
- Kirol taldea.
- Elkarteak.

6. JANGELA:

Itsasondoko eskolako jangelan janari osasuntsua eskaintzeko beharra ikusi da, eta, hori lortu ahal izateko proiektu bat egitea egoki ikusten da.

Eskolak janaria berotzeko aukera du, eta, hori izanik behartuta dago Eusko Jaurlaritzak bideratzen duen janaria ematea. Kontrakoa eginez gero, bekadunek beka eskubidea galduko lukete.

Hala proiektu bat egitearen beharra ikusten da Eusko Jaurlaritzari aurkezteko. Herrian bada jende gehiago gaia jorratzen ari dena, eta indarrak batu eta proiektu txukun bat garatzea planteatzen da.

6. BESTEAK:

Zaborraren inguruko informazioa: Zaborraren inguruko informazioa helarazteko esku orrietan informazioa ez dago eguneratuta. Eguneratzea eskatuko da udalean.

Errezeten liburua: Bizikidetzaren errazteko errezeten liburu bat egitea planteatzen da. Gauza erakargarria eta erabilgarria da eta herritarren inplikazioa errazten du.

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?
HURRENGO BILERA		
2019ko irailaren irailaren 12an		